


2. MERKATUAREN SEGMENTAZIOA:

Gure produktua lehen hezkuntzako, bigarren hezkuntzako eta batxilergoko Espainiako ikasleei zuzenduta dago (aplikazioa gazteleraz dago bakarrik, eta Espainiako hezkuntzan oinarrituta dago); hau da, 6-18 urte tarteko ikasleei, haur eta nerabe guztientzat. Izan ere, normalean, urte tarte hori da non ikasleek arazoak izaten dituzten, eta gure helburua ikasleei laguntza eskaintzea da arazo hauek buka daitezten. Orain, galdera da, maila horietako ikasleen artean, nori dago gehien bat zuzenduta Up to Date?

Galdera honen erantzuna oso erraza da. Aplikazioa arazo ugarietara aurre egiteko eta beste zenbait gauza hobetzeko pentsatuta dago. Beraz, Up to Date jarraian zerrendatzen ditugun arazoekin identifikatzen diren ikasleei zuzenduta dagoen aplikazioa da.

Hasteko, gure proiektuaren atal handi bat enborreko irakasgaietara zuzenduta egongo da, hau da, hezkuntzan urte guztietan finkatuta dauden irakasgaietara; hala nola, fisika, biologia eta geologia edo historia. Izan ere, gehien zigortzen duten gaiak izateaz gain, horien eragozpenek ikaslea jarraituko dute ikasketak behin betiko amaitu arte (erabakitzen duen bidearen arabera irakasgai batzuk izango dira edo beste batzuk), beste irakasgai errazagoei kalte eginez ere.



*Grafiko honek irakasgai horietarako laguntza behar duten ikasleen ehunekoak adierazten ditu. (<https://www.google.com/url?sa=i&url=http%3A%2F%2Fwww.impassemag.com%2Fmatematicas-idiomas-assignaturas%2F&psig=AOvVaw19JrI9C4QHeP6FMqIhjcC1&ust=1641978032471000&source=images&cd=vfe&ved=OCAwQjhxqFwoTCNCspl2rqfUCFQAAAAAdAAAAABAD>)

Gainera, kontzentratzeko eta ordutegiak antolatzeko zailtasunak dituzten ikasleentzako edota haien denbora optimizatu nahi duten ikasleentzako materiala badago; izan ere, nahiz eta produktua klasearen erritmoa eramateko zailtasunak dituzten ikasleentzako zuzenduta egon, lagundu ditzake nota hobeak lortu nahi dituenentzat.

Amaitzeko, sentitzen dugu motibazio falta gero eta ugariagoa dela, bai ikasle bikainen artean, bai ikasle ez bikainen artean. Ondorioz, sentsazio horrekin sentitzen diren ikasleak ere lagundu nahi ditugu; hau da, gure helburua da prozesuari azken emaitzari baino indar gehiago ematea, gogo eza eta ikasleak gainezkatu saihestu nahi dugu, motibazioa eta esfortzua baloratuz. Azken esaldi hau azpimarratu nahiko genuke 14-18 urte tartean, batez ere, mundua ezagutzen hasten delako, hau da, zailatsunak egunerokoan daudela ulertzen hasten dira nerabeek, eta hauei helduak bezala aurre egiten hasten dira.

“La adolescencia es una etapa en la que se compensa fácilmente el concepto de trauma con la experiencia de aprendizaje.”

Alma, Corazón y Vida

Hitz bitan esanda, ikasle gehienek, arazo batekin edo bestearekin identifikatuta ikusten dute haien burua, eta denborarekin, arazo horiek ez badira behin betiko bukatzen, beste batzuk sor daitezke, gurpil zoro bat sortzen. Beraz, gure zerbitzua laguntza handikoa izan daiteke hobeto planifikatzen ikasteko, ikasgai guztiakin eguneratuak egoteko, eta atera dezaketen nota altuena lortzeko, produktibitatea areagotuz eta ikaslearen bizitza hobetuz.